

OSTERA ATSEGIN BAT

(Oinharrizko euskara)

Por Patxi Ugalde

Un relato delicioso, con sabor a rocío mañanero y leche de oveja a la puerta de la chabola acogedora. En un euskera básico, muy asequibe, nos cuenta Patxi sus impresiones de un paseo en solitario, una hermosa mañana de abril, dando la vuelta a las campos de Urbia y Oltza, olvidándose del humo y las exigencias de Bilbao.

Apirilaren goiz fresko eta garbi batez, hiria lotan zegoela, motxila eta botak prestaturik, nire autoarekin atzean uzten nuen Miraflores-ko alda-pa. Txikitozaleentzat geratzen zen Bilbo. Niri Urbiako paraje gozoek itxadoten zidaten.

Arantzatzuko kanpaiek zortziak jotzen zitue-nean Sindikara heldu nintzen eta berehala hasi igoten. Lanegun arrunt bat izanik kotxea guztiz bakarrik geratu zen, Sindikako katuaren susmoak iratzarriz.

Bihotz alaia eta goizeko airetxoak animatua arin arin Elola lepoan, Urbiako atean, agertu nintzen. Ardiak pentsatzeko kapazak balira, Urbian kokatuko lukete beraien paradisuak. Eta ez ardiak bakarrik.

Ermitarako bidea utziz, Zabalaitz dorre xuri aldera abiatu nintzen, dauden bide askoren arte-tik bat hartuz. Aurreko petxada ondoren, orain bidetxo leun eta lasai hura aurizkitzen nuen gustora. Halako batean ahausi urrun batzuk borda batzutara hurbiltzen ari nintzela abisatu zidaten. Minutu gutxitan beraien ardiei esnea eraisten zieten bi artzain neukan nire begien aurrean. Borden tximinetatik sortzen zen keak. Iaino usain-

tsu bat bezala, bete zituen nire birikiak «Egunon!» esaten nien bitartean. «Bai dugu ona!», erantzun zidan batek. «Eta hola jarrai dadila!», besteak. Hauk izango ziren egun osoan entzungo nituen ahots guztiak.

Artaldeen beekadak bizkarrean utziz, laster heldu nintzen Pin-Pil-aren tontorrara. Handik begirada maitagarri batez agurtu nituen Araba eta Nafarroa. Urbasako ormek itzuli zidaten agura eguzkiaren izpiak isladatuz.

Ibilaldi eder bat oraindikan geratzen zitzaidala pentsatuz, pinadi batetatik zehar sartu nintzen San Adrian tunelerako bidea topatzeko asmoz. Beti bezala, denbora aurreratzeko pinadi batean sartzea ez da ideiarik egokiena eta batzu eman ondoren, besoak eta xangoak arantzez zauriturik, lortu nuen bidea eta itzelezko pagadi baten geriz-petik San Adrianerantz abiatu nintzen. Tunelarrantz joatean, bidearen harri ederrak zapalduz, aintziniko erromandarrak zetozkidan burura. Ba-zeukaten «kalzadak» egiteko gogorik! Eta nolako lekuetatik! Arrazoia du Obelix-ek «Zoraturik dau-de erromandar hauk!». Azkenez, kristoren San Adrian tuneletik pasa ondoren, EHME-aren erre-



Ardientzat Urbia paradisu bat da (Natxo Corral argazkia).

fujoraino hurbildu nintzen. Festa ez zenez gero hertsirik zegoen eta bere alboan egin nuen lehen geldialdia zerbait jateko.

Sabela beterik, nire urratsak desegin nituen, berriro tunela zehartu eta poliki, poliki, Kalbario aldaparantz abiatu nintzen. Eguzkia jadanik nahiko goi zegoenez, eskertzen zen basotxoaren geriza.

Nahiz eta apal apal egin igaera, Aizkorri puntara heltzean dana izerdiz blai nindoan. Tontorrean atsedenaldira edo bat egin nuen, harnasa lasaitzeko eta denbora berean handik ikusten den bista galantaz gozatzeko. Aurre aurrean Altzania neukan eta urruntxoago Aralar. Zenbat oroipen pozgarri ekartzen zidaten mendi maite haiek! Gogomen atsegin hauetaz eta belar berotxoaren gainean etzunda nengoela, loak harrapatu ninduen eta denboraldi on bat iragan arte ez nintzen itzarri. Gorputza pausatutik, berri ipini nintzen bidean eta gailurretik, harriz harri, Aitzabal tontorrraino heldu. Gero Aitzabaletik Aketegiraino, eta azkenez honetatik Aitz-Xuriraino. Hau oso trabesia polit eta airoso bat dugu, alde batean Urbiako zelai berdeak eramanez eta bestean, amildegi hondoan, Zegama-ko ibarra.

Ibilaldi eder bat pagadietan zehar (Natxo Corral argazkia).





Aitz-Xuri tontorretik Urbiako errekaraino jaitsi nintzen eta han garbitu nuen aurpegia eta erre-freskatu burua eta besoak, izerdia kentzeko. Zer edo zertxo jan eta gero, ermitarantz abiatu nintzen, non Aloñarako bidea hartu nuen. Bide eroso honetatik, Iferruz lepotik pasatuz, Ezkizta leporaino heldu nintzen. Handik, lepoa zehastu gabe, arin arin beheratu egiten den ezkerraldeko bidetik, laster agertu nintzen Arantzatzun, oso egun menditsu eder bat bukatuz.

DENBORAK

ARANZAZU	0 ordu 0 min.
ELOLA LEPOA	1 ordu 05 min.
PIN-PIL	2 ordu 00 min.
EHME-aren errefugia	3 ordu 05 min.
AIZKORRI	4 ordu 45 min.
AITZABAL	5 ordu 10 min.
AKETEGI	5 ordu 40 min.
AITZ-XURI	6 ordu 10 min.
ERMITA	6 ordu 45 min.
IFERRUZ LEPOA	7 ordu 05 min.
EZKITZA LEPOA	7 ordu 30 min.
ARANZATZU	7 ordu 55 min.



(Loaldiak, atsedenaldiak eta dibagazio guztirik aparte).